

Fermin Zarranz Apeztegia
Larraun, Nafarroa (1931)

Aurkibidea

Biografia

Madotzen (Larraun) jaioa 1931n. Ama bertakoa zuen eta aita, berriz, Egiarretakoa (Arakil).

Zintak

LRN-007

- **Proiektua:** Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo
- **Data:** 2008-01-01
- **Iraupena:** 8 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Artola Kortajarena, Koldo

LRN-013

- **Proiektua:** Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Data**: 1986-01-01
- **Iraupena**: 2 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea**: Aranzadi elkarte

Pasarteak

1. Elurretarako "korraletak"

- **Erref**: LRN-007/001
- **Iraupena**: 0:03:11. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:11
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

<p>Elur gainean ibiltzeko "korraletak" erabiltzen ziren. Mendian asko ibili izan dela haziendarekin dio.</p>

Transkripzioa

- Badakizu? zera, elurraren gainean-eta ibiltzeko, korraletak edo, aditu duzu esaten?
- Bai, bai, batto, bado orrek ee, bai... izena, korraletak, ebiltzen tzittiin ee...
- Eta forma, raketa bezalakoa edo?
- Bai-bai, raketa bezalako... ankan, jartzen tziin? da... ta soka batzukën lotö ta, eramaten tzeen.
- Eta nola basea handiagoa duen, ez da hainbeste sartzen oina elurretan; hola da, ezta?
- Ola, ola, ola...
- Eta errazago ibiltzen da...
- Hombre! diferentziik ez, diferentziik ez; orrekën ee, elurr aundi ona bat ee... denbo askoan, eltzen tze emendik! jode!... ezpaita, asentatzen baita! ue, lurre, beira... ezta apaltzen!
- Eta izena nola esan duzu orduan?
- Korraletak, korraletak itzenen dee, baietz...
- Bai, e?
- Zergätti izen-klase oë, aitzen nun nëk.
- Eta ez al zenuen kontatzeko nola ibiltzen zinen behien bila, San Migel inguruan eta?
- Ze? oñes?
- Bai.
- Mendin asko! je, egon ta emendëk San Migela, oñes askotan juan gaa, juaten giñenen betë oñes juaten giñen!
- Behiekin edo?
- Ez-ez! e... geinaazienda billatzea, emendëk eëltzen tzeen da, Uartekoa... or, mendi, emen, mugatzen duna... amabos pei igual paastu? ta, bakarron batzuk igual juan-da... urbildu ta esia pastuta dakala ta...
- Eta hemengo behiek hemengo dermioan egon behar zuten?
- Bai.
- Eta noizean behin bat edo beste pasatzen zen...
- Bai, ori beti izandö a ta, angoak ee onea... askotan.

- Ez dago hesiturik?

- Bai, alanbratue zeon ori baño, ause in da asko ta... iixte maen ba, ja! uartearrak iixten tziun orë; alanbreak ee... galdö dee ta, erdoittö ta zarto're ta, oste-gauzez eta... gastu asko izaten da ori, ixtuen ee ta, oain mendietaa lenao, mendiä ematen tzee erreire baño, oan eztao, olakoik!... ah, oain... mal tierra, merke dao.

- Eta zu korraleta horiekin ez zara ibili?

- Neone enai-, ez naizen ez.

- Eta zuk nor duzu buruan, nor ikusi duzu horren gainean ibiltzen? aita edo hemengo beste gizonen bat edo...?

- Bai, nere, jeh! nere bezalako at, ta, orrek ere!... ori eeltzen tzen, noizinbein ola... juanda; asko ez baño...

2. Gazte-denborako giroa Madotzen

- **Erref:** LRN-007/002
- **Iraupena:** 0:04:49. **Hasi:** 00:03:11. **Bukatu:** 00:08:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Sei anai-arreba ziren. Hika hitz egin izan dute. Auzoko batek hamazazpi ume izan omen zituen. Garai bateko bizimodua Madotzen. Herriko mutil kuadrilla. Gazte-denborako giroa.</p>

Transkripzioa

- Eta anai-arrebak izan dituzu?

- Bai, bai; sei, sei izandu ga.

- Horregatik ere ikasi zenuen ongi, hiketan-eta, hitz egiten...

- Ba, ala...

- Aspaldi egon nintzen (zurekin); anai-arrebari eta... to eta no eta (galdezka)...

- Elkarrekñ betë iketan? asike...

- Denbora hartan, gainera, ia etxe guztietan sei-zortzi ume izaten ziren...

- Bai-bai-bai-bai, jenealin, jenealin lau eo iru, emen... bezino onek izandö zittun? amazpë.

- Hamazazpi?

- Amazazpë... fixin baen (?) saille, majiña at kasta eratzen!...

- Joño! non dira horiek, non dabilta orain?

- Il ee, franko eñ dee ba!... bah! batzuk monja, beste atzuk ee... ezkondu, beste atzuk ee, il deenak franko.

- Hemen bada baten bat, herrian?

- Oain eztao bat ee, juan tzeen-ta. Iruñea juan tzeen da, ta or dabilte oräi're... noizi mein etortzen da, baia askotan ez, oain ee ez.

- Eta zure haurtzaroan zenbat familia zeuden hemen bizitzen? igual hamabi edo, ez?

- Bai, bai, urdun etxe guzitan baitzeen ta, gaiñea, etxe... bi o iru etxek ee, maixtarrak eo bazittiin, beste etxe, etxe eta, best etxe kozkorren bat, ta... oitan... bizi tzeen, meo oan? oain denak alde in tziin.

- Beraz, hamabi etxe baino gehiago badira herri honetan...

- Bai, urdun ee... etxe koxkorr oek; emen ee, or... etxe koxkor bat-ta dago

or, ola... pobre, e? bizittu izan da (...), kaminero at ta, bizittu izandu zela ta...

- Eta karrikan, umeak korrika eta builaka, orduan hainbeste ume, e?

- Bueno! urdun, urdun ee...

- Orain ixil-ixil daude herri hauek...

- Klaro ba! baia ya oai, eztao iñor e eta! eztao iñor; jendien... jolasa, laixterren zenbat aldës joaten giñen emendë, attetama siestaa igual-da, ddio! ni ixil-ixille, atalgañe-tarte artan, ddiia! laixter e plazaa, ta plazaa te, espartziñek ausatus, pozten giñen askotan!... pillotan ere ta... Ah, bai, gazte guzii tenak elkarrakën juatez, ixkiñe atzuk? beste (b)atien e... or ebëltzen giñen, urdun kuadrille bat giña(n)... bai, mutilletan sartu giñenen gu? eztakët ori... emezortzi urtetan eo ola, sartö giñen kuadrillaa, beste ezer bea(r) ta, emezortzë o sartö giñe.

- Hemezortzi neska-mutil edo?

- Ez, ez, mutillek bakarrik, mutilläk.

- Hemengo? herriko kuadrilla?

- Bai-bai, ah! ez sekula ainbeste ondo-ta!

- Taberna bazen orduan?

- Urdun bazen bai, auzko... etxe oietan? ba izaten tzuten.

- Jai egunetan-eta, baxoerdi batzuk artuz eta kantuz eta... ze giro, e?

- Gizon zarrak ee or dae, musie, sardintzar bat jokatuko baziin ee? pues kartan atsalde guziin, pintte at ardo o anis... olaxe aitzen tzeen.

- Eskola bazen orduan hemen, herrian edo?

- Exkola? bai, guri... guri ematten tziun.

- Ez zenuten joan behar Astitza edo?

- Ez, ez; etxe aundi ortan? apezta esan dotena ta Sen Mel aingeruu juaten dena ta or(s), or maestra ere orr eoten tzen, beraki jute zun (!) apezak, ori, maestra... umentzat eta; orrea juaten giñen, eskola(a), orr ekasi giñön.

- Eta beste gauza bat, bukatzeko: San Migeli kantatzen zenioten?

- Bai, oexe!

- Nolako kantua? gogoratzen zara nola den?

- Je! nëk, kantazaleak dienak ta...

- Bueno, baina, laburra bada...

- San Migel aingerurë kantatö in tzeon, etortzen tzenak kantatzen baitzeo: "Migel, Migel... buru zera? edo...", eh!

- "Migel, Migel, Migel gurea, zaindu, zaindu Euskal Herria" edo horrelako zerbait?

- Bai, bat kanta ere asten denean? segidoan segitzen deu, baño gaiñekoan? bakizu (...).

3. Madozko San Juan bezperako leloa, jada ahantzia

- **Erref:** LRN-013/001
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

<p>San Juan bezperako sua. Gainetik salto egin eta zer esaten zen.</p>

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com